

noaue



**Hurbilagok bonu kanpaina
berri bat jarri du martxan**

**Igandean manifestazioa
Donostian, GuraSOSeK deituta**

“Badator gazte asteburua!”



**Pedro San Cristóbal Murua hil da,
hamaika aurpegi izan zituen
aristokrata usurbildarra**

Hitzen, ekintzen eta errimen eztanda.
Herri bat BERRIAren kulturaren plazan.



Izan BERRIALagun **6 hilabetez 50 euroan** eta eraman BERRIAren agenda opari

Asteko
ikuspegia



Bietako bat
aukeran



Eguneko
ikuspegia

[Berria.eus/berrialaguna](https://berria.eus/berrialaguna)

* Abenduaren 20 arte • (0034) 943-30 43 45

berria zuk badakizulako

Auto Guria s.l.

auto Guria
Mobil Service

Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

KONFIDANTZAZKO TAILERRA!

943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

Antxeta *Irakita gaude!*
TABERNA-JATETXEA

egunero irekitzen dugu!
eguneko menua (astegunetan)
jaiegunetan: asteburuko menua
ogitaratekoak, pintxoak, razioak, oilasko erreak, paellak eramateko ere prestatzen dugu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 54 43 12

OPLGOXO

- GOSARIAK
- PINTXOAK
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK

Okindegia - Kafetegia

Astelehenetik larunbatera 06:00 - 21:00 / igande arratsaldetan itxita
Kale Nagusia 10, 20170 Usurbil - 943 37 45 95

Albisteak iruditan

‘Zumeta’, lau eskutara ondutako diskoa

Mikel Telleria Idiazabalgo kantariak eta Usoa Zumeta serigrafia-egile usurbildarrak ‘Zumeta’ izeneko diskoa plazaratu dute. Aurreko astean aurkeztu zuten Txikierdin, margolariarena izan zen estudio ederrean. Pandemia betean zendu zen Jose Luis Zumetaz gain, Basterretxea, Ruiz Balerdi, Ameztoti, Carmelo Ortiz de Elguea, Txillida, Oteiza eta beste hainbat artista omendu nahi izan dituzte era honetan. “Punta-puntako artea eskainiz, euskal kultura mundu aurrean aurkeztu zutelako”, Mikel Telleriak hedabideen aurrean aitortu zuenez.

Eklektikoa eta kontraste handiko diskoa dela dio musikariak. Hamaika kanta konposatu ditu baina bakarra da usurbildar margolariari eskainia dagoena, ‘Zumeta’. Diskoari izenburua ematen diona, hain justu. CDa osatzerakoan ordea, Jose Luis Zumetaren bi margolan baliatu di-



Mikel Telleria kantariak eta Usoa Zumetak osatu dute ‘Zumeta’ diskoa. Argitalpenak Udaren babesa jaso du.

tuzte: portadan ageri da bat, liburuxkan bestea (Zumetaren autoerreturatu bat).

Bernardo Atxagak jarri zituen Mikel eta Usoa harremanetan

Usoa Zumetak Bernardo Atxagaren bidez jakin zuen Mikel Telleriak kanta bat eskaini ziola bere aitari. “Asko gustatu zitzaidan eta iazko urrian egin genuen ‘Zu-

meta in memoriam’ ekitaldira gonbidatu nuen Mikel”. Ondoren etorri zen diskoa osatzeko lana.

‘Zumeta’ diskoak Usurbilgo Udaren babesa jaso du. Alkateak eskerrak eman zizkien bi artistei “disko hau egiteagatik. Zumeta omentzeko, transmisioa egiteko, Zumetaren hariari jarraitzeko modu ederra da, dudarik gabe”.

Laburrean

Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Sutegin ikusgai

Maria Jesus Etxeberria herrikideak bere argazki eta margolanak ikusgai jarriko ditu Sutegin, azaroaren 25etik abenduaren 4ra. Ordutegi honetan:

- Astelehenetik larunbatera: 16:30-19:00.
- Igandeetan: 11:30-12:30.

Mikel Laboa gogoan izango dute abenduaren lehenean

Abenduaren lehenean 14 urte beteko dira Mikel Laboa kantari donostiarra zendu zenetik. Utzi zigun sorkuntza ondare aberatsa entzungai izango dugu egun horretan zehar Usurbilen, bere omeneko plazan.

Peña Pagola elkarteko bazkide egiteko aukera

Kalezarko Peña Pagola elkarteko bazkide izateko aukera zabalik izango da abenduaren 15era arte. 18 urtetik gorako edozeinentzat irekita, Usurbilen bizi behar du. Informazio gehiagorako: 625 701 616 / 653 716 394.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ugaitz Agirre Zapirain

Biharrrak inoiz ez daki (3)

Kafea hotz zegoen. Eguzki epelaren goxotasuna benetan zen eskergarria, eta goiz hartako nire buruhausteak derrepen-tean ezabatu zirela zirudien. Txorien iskanbila mantra gisara erabili nuen. Halako monotonia deskonektatzailea zen, ohartzerako, palmondo baten gainean imajina nezakeen nire burua. Zorakeriak ernatzen imajinazioan, zuhaitz puntak beste perspektiba eskaintzen baitzuen. Agian, zoroagoa. Esan nion nire buruari: Zer pentsatuko ote dute erretiroa hartutakoek, erosketak egiten dabiltzan emakumezkoek, zakurra paseoan dutenek gazte bat begiak itxita eta irribarrez dagoela ikusitakoan? Drogatuta dagoela.

Nire galderari emandako erantzunak barregura eragin zidan, eta horrela zela bermatzeko, begiak ireki nituen. Bat-batean izan zen, zer nolako izua. Pare pare, beso bateko distantziara, hirurogeita hamarrak erraz zituen agurea topatu nuen. Kolonia usain indartsua nabaritu nion. Ez zuen kantitatearekin asmatu. Ondo nongoen galdezka nuen. Hortz horiak, baten bat faltan, eta ahoa zabaldu bakoitzean, sekulako ardo kiratsa. Deserosotasunaren hotzikarak bizkarrezurra



“Txorien iskanbila mantra gisara erabili nuen. Halako monotonia deskonektatzailea zen, ohartzerako, palmondo baten gainean imajina nezakeen nire burua”.

UGAITZ AGIRRE

**“Ezinegonak jota,
kafe hotza hurrupa
bakarrean
bukatu nuen”**

gurutzatu zidan.

Ezinegonak jota, kafe hotza hurrupa bakarrean bukatu nuen. Hark, sentitzen hasi berri nintzen ezinegona lehendik nuenaren beste sintoma bat zela ulertuta, tematiago galde-tzen zidan ea ondo nongoen. Ez dakit nola iritsi nintzen ondorio hartara, baina balio izan zuen. Eduardo Mendoza idazle kataluniarraren fikziozko Bartzelona horretan agertzen diren pertsonaia bat zela pentsatu nuen. Sinesgarria, baina fikziozkoa. Eta fikziozkoa izanik, ezin zidan ezer egin. Hala, beste modu batean ikusteko gai izan nintzen: pertsona per-

tsonaia literarioa.

Orduan, bere zimurrak ez zitzaizkidan hain makurrak iruditu, ez eta begiradaren joana horren zoroa.

Distantzia laburtzen joan zen nire arazoa planteatzearekin batera. Astebetekoa zen bizarra igurzten pentsatzen zuen izena ez esan, ezta galdetu ere ez nion agureak. Taberna zoko ilunetako zoro jakintsuen parekoa zen, alegoriazko erantzunak ematen dituzten horietakoa. Eman zizkidan irtenbide posible bakoitza aurrekoa baino eroagoa eta aldrebesagoa zen.

#1 (Bahiketarena): Laura lanetik etxerakoan harrapatu beharko nuke. Badaezpada ere atetik hurbil inolako eskandalurik ez eragiteko. Garrantzitsua aurpegia estalita izatea. Autoaren atea ere zabalik egon beharko litzateke, gauzak azkarrago egiteko. Baina, kasualitatez, norbaitek ikusi eta

poliziari deituko balio? Nou Barris auzunetik mossoak pertsekuzioan. Elkarrekin ikusi genuen komedia frantsesaren geroz eta antza handiagoa du. Hirugarren bati, agureari berari, filmatzeko eska diezaiokegu.

#2 (Txori etuarena): Plan honetarako perikito torrekobat harrapatu beharko nuke. Zauritua badago, egiazkoa izango da, baina kontua bere egoera penagarria simulatzea litzateke, alegia, ia hiltzorian. Albaitariarenera urgentziaz eraman behar dugula esango nioke Laurari, eta bera ezagututa, ziztu bizian joango ginateke. Behin kotxean sartuta, autobidera abiatu beharko nuke. Momentu kritikoa, ze Laura konturatzen bada perikitoa sano dagoela, akabo.

#3 (Anaiaren ezkontzarena): Lantegira deitu eta aitzakia on batekin libratu beharko nuke. Anaiaren ezkontza. Horrelako ospakizunek aitzakia on bezala balio dute, ezta? Ahalik eta ponposoena iruditu behar du, ordea. Han, Euskal Herrian dela ezkontza, eta familiari egundoko ilusioa eta poztasuna eragiten diola Lauraren presentziak. Inspektorea bailitza frogak eskatzen baditu, argazki saio eta eskulanak egingo ditugu.

Laugarrena aukeratu nuen: Bartzelona-Real partiduarena.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Art Pi
barkariak EGUINERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Pedro Sancristoval Murua, hamaika aurpegi izan zituen aristokrata usurbildarra

Pedro Sancristoval Murua, Islako kondea eta Riscoko markesa. Saroe jauregiko leinukoa. Adin bat dutenentzat, Periko markesenekoa; amonaren tituluarengatik herrian jasotako ezizena. Dena den, urterik gehienak Zaragoza eta Gasteiz artean eman zituen. Urriaren 4an hil zen, 90 urterekin. Tituluak titulu, euskararen eta kulturaren defendatzaile sutsua izan zen. “Araban, euskal kulturaren sustatzaile porrokatua izan zen”, Euskaltzaindiatik aditerra eman dutenez.

Periko markesenekoa

Usurbilen jaio bazen ere, gaztetan Zaragozara joan zen ikastera eta Zaragoza eta Gasteiz artean eman zituen urterik gehienak. Hala ere, garai batean “Periko eta bere familia osoa udan etortzen ziren hona”. Bere izena aipatzerik nahi ez duen herritar batek azaldu digunez, “Periko eta bere familia oso herrikoiak ziren. Etortzen ziren bakoitzean oso ondo integratzen ziren hemengo martxara”.

Periko euskaltzain urgazlea

Zaragozako Unibertsitatean Filosofia eta Letretan lizentziaduna, funtzionario plaza bat eskuratu zuen Arabako Foru Aldundian. Historiako irakasle eta arte kritikari ere izan zen. 1979ko abenduaren 20an, euskaltzain urgazle izendatu zuen Akademiak, eta Euskaltzaindiaren ekonomia batzordean jardun zuen 1987tik 1989ra arte.

Periko politikaria

Ardura politikoei ez zien izkin egin. Ramon Rabanera (PP) Arabako Foru Aldundiko ahaldun nagusia izan zen garaian, Kultura diputatua izan zen Periko. 1999tik 2003ra arteko legealdian, hain zuzen. Ez



Usurbilen jaio bazen ere, Pedro Sancristoval Murua Zaragoza eta Gasteiz artean eman zituen urterik gehienak. Islako kondea eta Riscoko markesa, Arabako Foru Aldundiko Kultura diputatua izan zen 1999-2003 legealdian, Ramon Rabanera (PP) gobernatu zuen garaian. Urriaren 4an hil zen, 90 urterekin. Argazkia: Arabako Foru Aldundia.

PERIKO MARKESENEKOA

“Politikan aritu aurretik, aski ezaguna zen Gasteiz nahiz Arabako kultur mugimenduan. Artium museoaren eta Gasteizko jazz jaialdiaren sustatzailea izan zelako, besteak beste. Artearen munduan ere, ospe handia zuen”

zen PPko kide gisa aurkeztu, independente moduan baizik. Orduko hartan, euskaraz egin zuen karguaren zina.

Periko kultur sustatzailea

Politikan aritu aurretik ordea, aski ezaguna zen Gasteiz nahiz Arabako kultur mugimenduan. Artium museoaren eta Gasteizko jazz jaialdiaren sustatzailea izan zelako, besteak beste. Artearen munduan bereziki, ospe handia zuen.

Eta ez bakarrik Euskal Herrian. 2011n, Andorrako Printzerriko komisario artistikoa izan zen Veneziako Biennale-an.

Periko liburugilea

Liburugile gisa lan ugari plazaratu zituen. Arteari lotutako argitalpen ugari osatu zituen, ia denak beste egile batzuekin elkarlanean: *Museos de Alava* (2000), *Emakumearen irudia*: bestelako begiratu bat Arabako Arte Eder Museoa (2003) edota *Paisajes vascos* (2003) izenekoak.

Gaztetan idatzitako hauxe izan zen ordea, itzal handiena izan zuena: *Usúrbil, un municipio del extrarradio de San Sebastián* (1958). Liburuak izan zuen oihartzunarengatik baino, gerora Usurbilgo herriari buruz idatzi duten guztientzat ezinbesteko erreferentzia izan delako.

Adar hauek denak aletuko ditugu ondorengo orrialdeetan.

Saroe jauregiko jabeen ondorengoa

Perikoren amona eta haren ondorengoak ondasun ugariren jabe izan dira Usurbilen. XX. mende hasieran, Muruako markesak (Perikoren amonak) Saroe jauregia, Olarri, Artzabal, Udarregi, Urteaga, Juandeuntzenea eta beste asko jaso zituen herentzian. Usurbilgo Baserriak eta Baserriarrak liburutik hartu ditugu datuok. Amona hil zenean, seme batek bereganatu omen zuen ondare osoa, Perikoren osaba batek. Honek tirabirak eragin zituen familiaren baitan.



Saroe jauregia Kale Nagusian dago.

Usurbil betikotu zuen liburu gogoangarri batean

Pedro Sancristoval Murua-ren sinadura hainbat argitalpenetan topatuko duzue. Arteari eta kulturari lotutakoak gehienak, ia beti askoren artean idatziak. Bere jaioterriari buruzko liburua da akaso itzal handiena izan duena: *Usúrbil, un municipio del extrarradio de San Sebastián* (1958) izenekoa. Geroztik hona Usurbili buruz idatzi duten ikerlari guztientzako ezinbesteko erreferentzia izan delako.

Usúrbil, un municipio del extrarradio de San Sebastián argitalpena tesi batean oinarritzen da. Pedro Sancristoval Muruak berak Zaragozako Filosofia eta Letren fakultatean aurkeztu zuena. 24 urterekin amaitu zuen tesia eta lan honi esker eskuratu zuen unibertsitateko lizentziatura 1956. urtean.

Liburuaren sarrerako idatzian eskerrak ematen zizkien laguntza eskaini zioten herritar guztiei. Horien guztien artean

bi lagun nabarmendu zituen: A. Arámburu eta A. Pagola. Elcano Institutuaren Geografia sailak plazaratu zuen liburua 1958. urtean eta Usurbilgo Udalaren babesa jaso zuen.

Irudiz ere, aberatsa

Pedro Sancristoval Muruak herriaren sorburura jo zuen eta Usurbilgo historiaren zertzelada nagusiak batu zituen. Historian sakontzeaz gain, demografia, ekonomia, klima, geografia eta egitura sozialean erreparatu zuen.

Irudiz ere aberatsa da oso. XX. mendeko 50eko hamarraldian eginga; desagertzeaz zen mundu baten eta industriari esker loratzen hasia zen herri baten lekuko zuzena. Liburuak orduko Usurbil irudikatzen duten argazkiak eta planoak biltzen ditu bere baitan. Egun existitzen ez den Usurbil bat, etxebizitzek eta industrialdeek antzaldatu aurreko herri bat. Garai bateko ibarren eta


erriberen erakusgarri aparta. Argazki-arkeologia maite duenarentzat, pagotxa ederra.

Erreferentzia, gaur egun arte

Usurbili buruz idatzi diren ondorengo liburu guztietan, ezinbesteko erreferentzia izan da Pedro Sancristoval Muruaren tesia. *Usurbil* (Luis Murugarren, 1974), *Usurbil 1371-1971* (Usurbilgo Udala, 1975), *Zubieta, mila urteko herria* (Joxe Ramon Zubimendi, 2000), *Usurbil iraganari begiratuz: ekoizpena* (Gotzon Garmendia, 2001), *Usurbilgo baserriak eta baserritarrak* (Josu Tellabide, 2004),... Liburu hauetan guztietan dator Periko markesenekoak gaztetan plazaratu zuen argitalpena, bibliografia atalean nabarmendua.

Ale originalik ez da Sutegin

Hamarkada hauetan guztietan maiz baliatu izan bada ere, *Usúrbil, un municipio del extrarradio de San Sebastián* li-



Elcano Institutuaren Geografia sailak plazaratu zuen liburua, 1958. urtean.

buruaren ale originalik ez da Sutegiko udal liburutegian. Fotokopiez osatutako bi liburuki daude kontsultagai. Original bakarra udal artxiboan dute jaso eta gastatu samar dago, pitzadura ugarirekin. Usurbili buruz ikertu nahi izan duten guztiek maiz baliatu izan duten seinale.

“Gertukoa zen, euskalduna, herrikoia eta Zumetazalea”

Jabier Pikabeak tratatu gutxi izan zuen Pedro Sancristoval Muruarekin. Berarekin egon zen apurretan, itxura ona hartu zion: “gertukoa zen, euskalduna, herrikoia”. 36ko gerraren ondorenean, gosea pasatutakoa nonbait.

Zumetazalea zela oroitzen du Pikabeak, eta Artzabal baserria utzi ziola. “Artzabal eta Artzabal ingurua bereak ziren. Ez zituen saldu nahi, ez zuelako Usurbil desitxuratzetik nahi”.

Honen harira, kontu polita azaldu digu Pikabeak. 70eko hamarkada hasieran, artean Franco diktadorea bizirik zela, zinegotzi batzuk dimisioa eman zuten eta horien ordeztu beste herritar batzuk sartu ziren udaletxean. Tartean, Jabier Pikabea bera. “Usurbil



Artzabal baserria Pedro Sancristovalen familiarena zen. Berari esker, Jose Luis Zumetak bizitoki eta lantoki paregabea izan zuen hainbat urtez. Argazkian, Zumeta Artzabalgo ganbaran, koadro bati begira. Argazkia: Antton Elizegi, 1972.

salbatzearen egin genuen”. Orduko plan orokorrak dentsitate demografiko altuko urbanizazioak eraikitzea ahalbidetzen zuen, “eta hori aldatzeko sartu

ginen udaletxean”.

Zinegotzi izan zeneko garai hartan hasi zen Zumeta frontoi atzeko muraletan pentsatzen. Zeramika piezak egiteko labe

bat behar zuen eta Periko markesenekoaren bitartez, egokia izan zitekeen bat lokalizatu zuten Zaragozan. “Orduan hantxe bizi zen, baina harreman estua mantentzen zuen Usurbilekin eta Zumetarekin. Zaragozako labegileak ezagutzen zituen”, eta halaxe abiatu ziren Zaragoza aldera Jabier Pikabea, Jose Luis Zumeta eta Periko beltza (ezizen hori ere ba omen zuen herrian), zeramikak egosteko labe bila.

Zaragozatik ekarritako “labea makala zen ordea”, Pikabeak azaldu digunez. Pentsa, 3.000 pieza egosi behar ziren. Luzuriaga lantegiko labea erabiltzeko baimena lortu zuten, akabo arazoa. Horri esker, Zumetak labeko lana garaiz bukatu ahal izan zuen.

“Tituluek ez didate pribilejiorik ekarri, batere”

2007ko urtarrilaren 28an, Argia aldizkariak noblezia-tituluen inguruko erreportaje bat plazaratu zuen. Unai Brea kazetariak ondu zuen eta erreportajearen osagarri gisa Pedro Sancristoval Murua elkarrizketatu zuen. “Gezurra da gaur ‘noblea naiz’ esatea” goiburua zuen solasaldia osorik ekarri nahi izan dugu gogora.

Pedro Sancristoval Murua Usurbilen jaio zen, eta Zaragoza eta Gasteiz artean bizi da gaur egun. Usurbilen Periko markesenekoa da, amonaren tituluaren kariaz jasotako ezizena: “Hura Muruako markesa zen”. Pedrok berriz, titulu bi jaso zituen aitarengandik: Islako kondea eta Riscoko markesa, Gaztela-Aragoikoak. Hori ere, jende gutxik omen daki haren jaioterrian.

Argia: Ondorengotzaz jaso dituzu zure tituluak, aitarengandik.

Pedro Sancristoval Murua: Bai, noski.

Argia: Ez dakit horrek zuri zer ekarri dizun.

Pribilejiorik ez behintzat, batere, zorionez gainera. XIX. mendera arte baziren nobleak, baina hori agortu egin zen, hil egin zen, Konstituzioagatik. Orduan beste ideia bat sortu zen, beste legedia bat. Eta horrela sortu zen hiritarra. Denak ziren hiritarrak, norbere eskubideekin. Eta ordutik nobletasun hori zeharo hil da. Garai hartan noblea izena zen, substantiboa, orain adjektiboa da.



Argia aldizkariari elkarrizketa bat eskaini zion 2007an. Osorik jaso dugu orrialde honetan. 2012an Real Maestranza de Caballería de Zaragoza zaldun-elkarteko kide izendatu zuten. Bi urtera teniente izendapena jaso zuen. Argazkia: RMCZ.

PERIKO MARKESENEKOA

“Tituluek ez dute pribilejio izan behar. Familiako kontu hutsa dira. Usurbilgo semeok ez daukagu horren beharrik. Isil-isilik gabiltza, eta askoz hobe”

Argia: Tituluekin batera zer edo zer gehiago jaso zenuen, ondasunik edo?

Bat ere ez. Erdi Aroan-eta, nobleak lur jabeak izaten ziren, baina geroago, XVI. eta XVII. mendeetan, gauzak aldatu egin ziren, tituluak ohorezkoak ziren, lurrik gabekoak. Aitor-tza bat zen, domina baten modukoa. Eta segitzen da ematen. Baina gaur egun ez dago pri-

bilejiorik. Aramaioko kondeak bazuen hango neskatekin, ezkondu baino lehen, oheratzeko eskubidea. Zorionez, hori aspaldi galdu zen. Gezurra da gaur egun ‘noblea naiz’ esatea. Ez, zu noble familia batetik zatoz, zure familiakoak nobleak ziren XVIII. mendera arte, baina zu besteak bezalakoa zara, hiritar bat, boto-emaile bat, eta kito. Zergak pagatzen dituzu besteak bezala. XVIII. mendera arte, nobleak ez zuten zerga asko pagatu behar, baina orain besteak bezala egiten dute.

Argia: Erabili izan duzu zeure titulua? Alegia, inoiz esan duzu: ‘Aizu, ni ez dakit nongo markesa edo kondea naiz’, zerbait lortzearen?

Behin ere ez. Batzuetan esan didate: ‘Hi, emadak hire titulua nire upategiko ardo bati izena emateko, eta dirua emango diat’. Baina ez dut onartu hori, ez dut gustuko.

Argia: Nahiago, orduan, tituluduna zarela jakiten ez bada?

Tituluek ez dute pribilejio izan behar, eta ez dira saltze-koak. Familiako kontu hutsa dira. Beste kontu bat da herri askotan, eta hiri handietan – Madril, Bartzelona...– titulu bat edukitzea zerbait dela. Eta ikusten ditugu pertsona batzuk ¡Hola! aldizkarian eta halakoe-tan. Baina Usurbilgo semeok ez daukagu horren beharrik. Isil-isilik gabiltza, eta askoz hobe.


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus


Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Isil-isilik ibiliko zen, baina denon begi-bistan

Tituluek “ez dute pibilejio izan behar, eta ez dira saltzekoak. Familiako kontu hutsa dira. Usurbilgo semeok ez daukagu horren beharrik. Isil-isilik gabilta, eta askoz hobe”. Hala zioen 2007an Argiari eskainitako elkarrizketa batean. Harrotu gabe ibiliko zen, baina denon begi-bistan. Disimulorik gabe. Argazkiok dira horren erakusgarri.

Noblezia-tituluei esker, Espainiako aristokraziaren ingurumarietan bazen norbait. Borboikoen artean esate baterako, aski ezaguna zen. Juan Carlos I eta Sofia Espainiako errege emerituen ezkontzan izan ei zen eta gerora tratatu zuzena izan zuen Elena Espainiako infantarekin zein Felipe VI Espainiako erregearekin.

Juan Carlos I eta Sofia errege emerituen ezkontzan

Periko markesenekoa Juan Carlos I eta Sofia Espainiako erregeen ezkontzan izan omen zen eta Usurbilen oso zabaldua da goen kontua da haxe.

Juan Carlos I eta Sofia ezkondu zirenean, bi ospakizun egin zituzten: katolikoa bata, orto-



Pedro Sancristoval Murua maiz elkartu zen Espainiako errege etxeko kideekin. Argazki hau 2014koa da, Zaragozan egindako ekitaldi batean ateratakoa. Periko ezkerrekoa da. Argazkia: RMCZ.

PERIKO MARKESENEKOA

**1962ko maiatzaren 14an,
Juan Carlos eta Sofia
Espainiako erregeen
ezkontzan izan omen zen,
gonbidatu gisa**

doxoa bestea (Sofia greziarra da jaiotzez). Ortodoxoa Ate-

nasen egin zuten. Ospakizunetara Espainiako Armadaren itsasontzi bat bertaratu zen. Ezkonberriak Pireora iritsi eta lur hartu zutenean, Espainiako Armadako militarrek hantxe ziztuzten zain, tente, ezkonberriei gorazarre eginez. Soldaduen artean usurbildar bat zegoen, Mikel Urkia Ezkerra gaztea. Soldaduska garaian edo, hala-

beharrez eramana akaso. Lehen lerroan zen Urkia, segizioa noiz pasako zain. Bere begien aurrean pasa ziren ezkonberriak, ezkonberrien sendiak eta aristokraziako ordezkariak. Azken hauen artean nor ikusiko eta Periko markesenekoa. Mikel Urkiak Periko parez pare izan zuenean, “Noaua!” bat bota zion, ahapeka.

Espainiako Borboikoekin gertuko harremana izan zuen

Islako kondea eta Riscoko markesa izateaz gain, Pedro Sancristoval Murua Zaragozako Real Maestranzako kide zen. Zaldun-elkarte honetako ekitaldi ofizialetan Borboikoek hartzen zuten parte. Hainbat urtez Real Maestranzako tenientea izan zenez, Pedro Sancristoval Muruak berak egin zien harrera ofiziala Espainiako errege etxekoei.



Zaragozako Real Maestranzako ekitaldi batean, Felipe VI erregearekin. Eskubikoa da Periko, Islako kondea eta Riscoko markesa. Argazkia: Casa Real.

Garai batean Juan Carlos I erregea gonbidatzen zuten ekitaldi nagusietara, baina

honek abdikazioa sinatu zutenean, Felipe VI hartu zuen aitaren lekukoa.

XI. mendean osatutako zaldun-elkartea

Noblezia-tituluen bezala, zal-

dun-elkarteen sorrera ere aspaldikoa da. Real Maestranza de Caballería de Zaragoza zaldun-elkartea 1118. urtean sortu zen, Alfonso Lehenak Zaragoza konkistatu zuen garaian. Geroztik, hirian zein Aragoiko lurraldean eman diren gertaera historiko guztien lekuko izan da elkartea.

Gaur egun, Felipe VI Espainiako erregea ageri da zaldun-elkarteko kargurik gorenean. Periko markesenekoa juntako kide izan zen hil zen egunera arte.

ETXEKOA, BERTAKOA

HERRIKOEN ZERBITZUA BAINA HOBERIK BA AL DAGO?



Ikus gertuagokus-en bidez HURBILAGOKO
elkartak, bazterak eta proiektuak

hurbilag
USURBILGO MERKATARI ETA
OSTALARIEN ELKARTEA

Usurbilgo 840 herritar eta 30 entitate, euskaraz eragiteko prest

Euskarari gorazarre egin, dantzan, bertsoan eta abesten eman zioten ongi etorria herri eragile eta herritar hainbatek azaroaren 18an bi astez, ehunka lagun ariketa kolektibo berean murgilaraziko dituen ekimenari. Orbeldi dantza taldearen laguntzaz, Euskaraldiko abestiaren koreografia prestatu eta plaza-ratu zuten. Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak euskarari abestu zion, tartean, lehenbizi bertsoan eta gero Iñorkiñak taldeko kide Mikel Alkortak eta Ixak Arrutik musikaturiko Xabier Iraola herrikideak sortutako kanta abestu zuten. Orbeldi, Kantu Taldea eta Zumarte Musika Eskolakoak batu zituen hitzordua, aipatu herriko talde den Iñorkiñak-ekoek emanaldiarekin borobildu zuten.

“Jantzi txapak, gora bihotzak: Hitzez ekiteko garaia hasi da!”. Eta orain, “15 egun ditugu hitza ekintza bihurtuta, lorpen berriak izateko”. Hala zioen ekitaldi berean Euskaraldia-



“Jantzi txapak, gora bihotzak: Hitzez ekiteko garaia hasi da!”. Euskaraldiaren hasierako ekitaldian jende ugari batu zen.

EUSKARALDIA

“Euskaraldiko txapa soinean eramanda, euskara ulertzen duen komunitate oso bat agertzen da modu publikoan Euskal Herri osoan”

ren herri batzordeak plazaratu zuten manifestuak. “Hautuak harrotasunez erakutsi eta probatzeko garaia da Euskaraldia. Txapak jarrita ingurukoei gure

nahia erakusteko garaia”.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko

Euskaraldia herrian sustatzen aritu den herri batzordetik egingarriak zaizkigun erronkak finkatzeko gonbita luzatu digute. “Zer lortu nahi duzu aurtengo Euskaraldian?”. Ziotenez, “hizkuntza ohiturak aldatzea ez da batere erraza, horregatik gonbidapen bat luzatu nahi dizuegu partaide guztiei. Norberak jar diezaiola bere buruari edo har dezala erronka

praktiko bat, datozen bi asteetarako helburu egingarri bat”. Helburuetako bat, hitanoa ahotan hartzea izan daiteke. Hika aritzeko prestasuna duenak Hizkuntza zentroetara joan daitezke. Hika aritzeko prestasuna duenak Hizkuntza zentroetara joan daitezke.

Txapa janztearen garrantzia

840 herritarrek baino gehiagok emana dute izena Euskaraldian parte hartzeko, baita 30 entitateek ere. Helburua proposatu zaigun ariketa egoki egitea den arren, Euskaraldiarekin hartutako konpromisoa ikusgarri egiteko deia egin dute. “Askotan gure aurreiritzietan oinarrituta, solaskideak euskara jakingo ez duela pentsatu eta gaztelaniara jotzen dugu. Euskaraldiko txapa soinean eramanda, euskara ulertzen duen komunitate oso bat agertzen da modu publikoan Euskal Herri osoan. Horrek lagunduko digu dagoeneko identifikatzen euskararekin norekin gehiago erabiltzeko aukera dugun. Beraz txapak janztera gonbidatzen zaituztegu”.



Iñorkiñak taldeak borobildu zuen Euskaraldiaren hasiera-ekitaldia.

Euskaraldiaren amaiera Aginagan ospatuko da

Abenduak 3, larunbata

■ 22:00 Euskaraldiko Gala, Aginagako Eliza Zaharra elkargunean.

Zehaztasunak: “Euskaraldiaren baitan antolatuta den Gala dugu hau. Late night formatuko saio berritzaile honetan aurkezleek gidatuta musikariak, monologistak, bentri-lokuoak, magoak, zirkua eta askoz gehiago!”.

■ Sarrerak: 10 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman eta Arrate tabernan salgai.

■ Antolatzailea: Eliza Zaharra Elkargunea.



Ofizioen Gida



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76

943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK

· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza
Igeltseritza orokorra

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behe, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Antonio URRUZOLA
AROTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Inaki
AROTEGIA

943 362 664

Barren Elxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoen.arotzgi.net jr.ibargoen@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859

943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas Telemar

943 55 33 99

info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI

APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943

Pontapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL

Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Inaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarainiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFIGURATZAKO GRENIOAK · KOKUHEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04

XNORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

Asteburu eder bat Urdiñarben

Ohitura duten moduan, Urdiñarben izan dira asteburuan. Urtero Seaskako ikastolen integrazio batzordearen aldeko laguntza jasotzeko jaialdia ospatzen dute eta usurbildar zein aginagarrek prestatzen dute afaria. 200 lagun elkartu dira aurren. “Xiberotarrekin batera pasa dugu asteburu ederra”, berri eman diote NOAUA!ri hara joandako herrikideek, albiste honi atxikitako argazkia helaraztearekin batera. Gogoan izan, hango ikastolak laguntzeko badugula beste bide bat; tokiko produktu goxoekin hornituriko saski ederrak eskuratzeara.

3 otar aukeran

Pettarra, 51 euro:

Produktuak: ahate gibel berrosatua, ezti, ardi gazta kiloa, bixkotx gatzatuak eta pastak.



Usurbildarrak eta aginagarrek Seaskako ikastolen integrazio batzordearen aldeko jaialdian izan ziren. 200 lagunentzako afaria prestatu zuten.

3 OTAR AUKERAN

“Zuberoako ikastolen aldeko saskiak erosteko epea zabalik da oraindik. Errigorakoan aldiz, eskaera-epea amaitu da”

Arbaila, 57 euro:

Produktuak: Ezti, bixkotx artisanalak, kilo erdiko bi gazta zati, bixkotx gazituak, erreximen- tisanak eta pastak.

menta, tisanak eta pastak.

Basabürüa, 68 euro:

Produktuak: Xerri pate, bixkotx artisanalak, ardi gazta kiloa, xahalki axoa, lukainka idorra, eta pastak.

Eskaerak:

Azaroaren 27ra arte, NOAUA!an edo ikaskoli.eus atarian.

Atzeritartasunari buruzko

informazio saioa

Mundualdiaren bezperatarako iragarria zegoen hitzordua azaroaren 29an egingo da, 17:30-19:30 artean, Potxoenean. Eusko Jaurlaritzaren Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua den Biltzen-en “saioaren helburua tratatu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren kontzeptuari buruzko ikuspegi orokorra ematea da, baita estatu espainiarreko atzeritarrentzako arau-esparrura eta nazionalitate-prozedurara hurbiltzea ere”.

Izen-ematea

Hitzorduan parte hartzeko izena aurrez eman behar da bide hauetatik: parekidetasuna@usurbil.eus 943 377 110.

Zer



duzu ulertu nahi?

Modu askotan esan daiteke EZ, baina modu bakarrean ulertu.

SOILIK BAI DA BAIETZ.

azaroak
25

Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111 24h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



araba álava
Izuzte Alkanduzko Alkanduzko Alkanduzko



Usurbil-Ospitaleak Lurraldebus zerbitzua zabaldu izana txalotu du PSE-EEK

Aurrerantzean, Usurbil-Ospitaleak Lurraldebusen autobus zerbitzua Miramon barrualdera iritsiko da. Honek Usurbil, Lasarte-Oria, Errekalde eta Hernani ospitaleekin lotuko du herritarren eskaerari erantzunda. Aldaketak Usurbil Donostiako Miramon Parke Teknologikoarekin lotuko du geltoki berriekin, Mikeletegi kalean, 6. eta 12. zenbakietan, Donostiarako noranzkoan; eta 5. zenbakian Miramonen parean, Usurbilerako norabidean. Patxi Suarez udal talde sozialistaren bozeramaileak “oso albiste ona dela” esan du Rafaela Romerok zuzendutako Mugikortasun Departamentuak Lurraldebus BU02ren ibibidea zabaldu izana.

Ohar batean, Suarezek nabarmendu du Aldundiak



Usurbil-Ospitaleak autobus zerbitzua Miramon Parke Teknologikoarekin lotuko da aurrerantzean.

PATXI SUAREZ

“Garraio publikoak hobetzen jarraitu behar du, eta zabaldu egin behar da iristen ez den eremuetara”

hartutako erabakia garraio publikoaren erabiltzaileen beharretan oinarritzen dela. Gaur egun, Miramon Parke Tekno-

logikoan 5.797 pertsonari lana ematen dieten 178 enpresa daude. Bozeramaile sozialistaren ustez, garraio publikoko zerbitzuek hobetzen jarraitu behar dute, eta zabaldu egin behar dira iristen ez diren eremuetara. Horretarako, trazadura eraginkorragoa eta efizienteagoa lortu behar da, gaur egun indarrean dagoena kasu.

Helburua, ibilgailua gero eta gutxiago erabiltzea

Sozialistek badute lehentasun bat etorkizun hurbilera begira: “norberaren ibilgailua gero eta gutxiago erabiltzea eta herritarren eskaerei erantzutea. Gainera, neurri horiek errepideko trafikoa murrizten dute, aparkalekuetako arazoak arintzen dira eta Miramon Parke Teknologikora joateko eta itzultzeko aukera errazten diete ibilgailu propiorik ez dutenei”.

Ekintzaileentzako dirulaguntza ebazpenak

Merkataritza lokal hutsetan jarduera ekonomiko berri bat abiarazteko nahiz Kabiene elkarlan gunean urtebeteko egonaldiak diruz laguntzen dituen lerroari lotutako deialdien ebazpenak kalera-tu ditu Usurbilgo Udalak. Eskaera bat jaso dute jarduera ekonomiko berriak sustatzeko laguntza deialdian, hiru Hasiz Hazi bekarekin Kabiene urtebeteko egonaldia egiteko. Xehetasun gehiago, azaroaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

199 langabetu urrian

Irailean baino langabetu bat gehiago zenbatu zuen Estatuko Enplegu Zerbitzuak joan den hilabetean Usurbilen, guztira 199.

Etxeko langileen egoera auzitan Potxoenean



Euren aldarrikapenak jaso eta emakume atzerritarren egoera ulertzen lagundu zuen hitzaldiak.

Zaintza lanen egungo egoera aztertu eta Maitelan Kooperatibaren lana ezagutzeko aukera izan zuten aurreko astean Potxoenean. Usurbilen zaintza ekosistema eredu propioa erakitzeko abian den prozesuaren baitan antolatutako hitzaldi zikloko lehen saioa izan zen hura.

Matxalen Legarreta EHuko irakasleak eta Txefi Roco LABeko ordezkariak marko teorikoa eta egungo egoera orokorra azaldu zuten. Horien aurretik, Maitelaneko bi ordezkariak Hernaniko kooperatibaren funtzionamenduan eta atzeritiko etorritako emakumeen egoeran jarri zuten arreta.

Eskola Txikien Eguna ospatu zuten larunbatean Aginagan



Helduek eskolako baratzea txukundu zuten eta gaztetxoek jolasean aritzeko hamaika aukera izan zituzten.

Eskola Txikien Eguna ospatu zuten aurreko larunbatean Aginagan. Goizean eskolako baratzea txukuntzeko azpiegitura berria prestatu zuten helduek, umeek jolasteko aprobetxatu zuten bitartean. Marrazkiak egin zein kirolaz gozatzeko aukera paregabea izan zuten.

Ondoren, bazkaria egin zuten Eliza Zaharrean familiek eta Dj zein karaokearekin hartu zuten arratsaldea. Jokoak egiteko aukera ere izan zuten arratsaldeak aurrera egin ahal, eta amaitzeko Maddi eta Eleneren kontzertuarekin gozatu ahal izan zuten bertaratutakoek.

“Arkaitzerreka hil nahi dute, erraustegiaren pozoien froga ezkutatzeko”

2020ko maiatzean ehunka arrain hilda agertu ziren Zubietako Arkaitzerrekan, erraustegitik isuritako amonioaren eraginez. Ordutik, “bi urte eta erdi hauetan kutsatuta datoz Arkaitzerrekako urak”, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak salatu duenez. Azaroaren 12an bisita gidatua antolatu zuten kaltetua dagoen zonaldera. Hitzorduan parte hartu zutenek, Arkaitzerreka nola dagoen bertatik bertara ikusi eta hainbat azalpen argigarri jasotzeko aukera izan zuten.

Bi salaketa nagusi plazaratu nahi izan zituzten. Batetik, ezkutatu egin nahi dutela orain arte Arkaitzerrekak azaleratu duena; erraustegia bera sortzen ari den kutsadura. Eta erakusten ari den zikinkeria itsasora desbideratu nahian dabilatzala. “Erraustegian zer gertatzen ari den argitu gabe, pozoiak nondik alde egiten duen aitortu gabe eta ihesa konpondu gabe... ur kutsatuak bidali nahi dituzte etxeetako komunitako ur zikinak balira bezala Loiolako araztegira, azkenean Donostian itsasoratzeke”. Horretarako eskatu dio Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Ura Agentziari, Arkaitzerrekan ponpatze sistema bat eraikitzeke baimena. “Horrekin



Azaroaren 12an, Arkaitzerreka nola dagoen ikusi eta hainbat azalpen argigarri jasotzeko aukera izan zuten.

ERRAUSTEGIAREN AURKAKO MUGIMENDUA

**“Ezkutatu
egin nahi dute
orain arte Arkaitzerrekak
azaleratu duena;
erraustegia bera
sortzen ari den
kutsadura”**

guztiaarekin, Arkaitzerreka pozoitu ondoren hiltzeko zorian utziko dute, euririk ez denean erabat agortuta geratuko baita. Bere arrainak akabatu ostean, Arkaitzerreka hil nahi dute,

horrela ezkutatzeko erraustegiaren pozoien froga”.

Mobilizaziorako deia

Egoera honetan, eskaera bana luzatu diete agintari, hedabide eta herritarrei; Gipuzkoako arduradun politikoei herria gertatzen ari denaz informatu eta erraustegia geratzeko; komunikabideei “bilatzeko eta konstatzeko Zubietan gertatzen ari den delitu larri honen egiak”. Gipuzkoarrak mobilizatzera deitu dituzte, hondakinen kudeaketa sistema eraginkortzea galdegitearekin batera.

Igande honetan, herri harresia eraikitzeke deia Zurriolan

Zubietako erraustegia prebentiboki ixtea eskatzeko herri harresi sendoa eraikitzeke deia egin du GuraSOSe, igande honetan, azaroaren 27an, eguerdiko 12:00etan. Erraustegiak isuritako kutsadura Arkaitzerrekatik desbideratu nahi duten eremura, Donostiako itsaso parera, Kursaalera mobilizatzera joateko deia egin dute, “dioxinak ez Orian, ez Zurriolan!” aldarripean.

Bizipozaren jardunaldi eguna

Larunbat honetan Sutegin, egitarau honen bueltan.

Azaroak 26, larunbata

■ 10:00-13:00 Bizipozaren 6. Jardunaldia Sutegin: “Zaintza sistema publiko-komunitarioaz: elkarrekin hausnartzen,

partekatzen eta eraldatzen”.

■ Egitaraua:

1-“Munduak guztiontzat beharko luke, baina ez da” liburuen aurkezpena. Peio Manterola Pavo eta Amagoia Mujika Telleria.
2-Gaur egungo markoaren

kokapena. Felix Arrieta Frutos.
3-Bizipozako elkarte bizi-penak. Gure Señeak elkarte, Arnasa elkarte eta Pausoka elkarte.
4-Ondorioak. Atsedenaldea.
5-Mahai bueltan tertulia: Sis-

tema publiko komunitarioa. Zelai Nikolas Ezkurdia eta Felix Arrieta Frutos.
6-Zer dago gure esku? Mikro irekia.
7-Ondorioak.
■ Izen-ematea: 688 744 832
bizipoza@bizipoza.eus

“Badator gazte asteburua!”

Aztarrika Gazte Asanbladako kideen mezua da hauxe: “Badator gazte asteburua eta aurten parrandaz, ekimenez eta borrokaz beteta dator! Animatu eta gerturatu!”. Asteburu bete ekitaldi iragarri dute.

Bi galdetegi

Gazte Asteburuaren atarian, bi galdetegi plazaratu ditu Usurbilgo gazte mugimenduak. Batetik, Kafe Tertuliak herriko puntu beltzak identifikatzeko lanketari ekin zion urriaren 29ko Egun Morean. Lanketa honetara batu nahi dituzte herriko emakumeak*. Horretarako, sare sozialetan eseki duten galdetegia betetzeko deia egin dute.

Usurbilgo Ernaik bestalde, “herriko gazteen osasun psikosozialaren egoera erreala zein den identifikatzeko” egitasmoa abiarazi du. Gai honi lotuta gazteek dituzten behar eta interesei buruzko hausnarketa fasearekin ekingo diote proiektuari. Sare sozialetan eseki duten galdetegia betetzeko gonbita luzatu dute.

Borroka Astea Buruntzaldean

Horrez gain, Buruntzaldeko Borroka Astea iragarri du es-



Aztarrika Gazte Asanbladak Aztarrikant kantu jira osatu zuen aurreko ostegunean, Sutegiko aterpean. Abesti zaharrak, ezagunak eta plazaratu berriak abesteko aukera izan zuten bertaratutako dozenaka gaztek.

‘AZAROAK 25’

**Ostiral honetarako
elkarretaratzea deitu
dute, 19:00etan
Mikel Laboa plazan**

kualdeko Ernaik, abenduaren 1etik 10era. “Egitarau zabala izango dugu zeharkatzen gaituzten hamaika borroketan sakontzeko eta ekiteko”. Abenduaren 1ean “Gazteok eta euskara” hizpide duen saioa iragarri dute Lasarteko Xirimirin 18:30etan; biharamunean ordu berean Andoaingo Gaztetxean, “Gazteen Lan Eskubideak”. Euskararen Eguna ospatuko dute abenduaren 3an edo-

ta makroproiektuen aurkako hitzorduan murgilduko dira hilaren 4an. Egitarau osoa datorren aldizkarian.

Gazte Asteburua

Azaroak 25, ostirala

■ 18:00 Gazte Kedada eta Mural Margoketa.

■ 19:00 Azaroaren 25eko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. “Sistema honetan elkar zaintzea erradikala delako, neska* gazteok autodefentsa feminista” aldarriaren bueltan, “Kafe Tertuliatik azaroaren 25ean elkarretatzeko deialdia egin nahi dugu zapalkuntza honi aurre egiteko. Sistema honetan elkar zaintzea erradikala

delako, animatu elkarretatzera!”. Deitzailea: Kafe Tertulia.

■ 20:30 Gazte Txupinazioa eta ekitaldia.

■ 22:00 “Gazteen behar eta erronkei aztarrika” gazte lokalean.

■ Jarraian: Euskaraldiari babesa adierazteko argazkia.

Azaroak 26, larunbata

■ 11:30 Miseriaren oka.

■ 13:00 Kuadrila arteko paella lehiaketa eta bazkaria bertsolariekin: Jon Altuna, Harri Agirresarobe, Unai Azpiroz.

Arroza/ gatz/ olio gure esku.

■ Jarraian: HiXelfi erronka.

■ 18:00 DJ ibiltaria.

■ 20:30 Maria Angelesi elkartasuna adierazteko kontzentrazioa.

■ 21:00 Gazte Afaria + Sorpresa. Txartelak Aitzagan eta Txirristan azaroaren 23ra arte salgai.

■ Ondoren, kontzertuak: Gala-zota, Dena, Dj Ztart.

Azaroak 27, igandea

■ 12:00 GuraSOsek deitutako erraustegiaren aurkako manifa Donostiako Kursaal.

Antolatzailea: Aztarrika gazte asanblada.

Hurbilagok bonu kanpaina berri bat abiarazi du

Hurbilagok bonu kanpaina berri bat jarri du martxan. Hilaren 24an ipiniko dituzte salgai eta gertuago.eus atariaren bidez erosi beharko dira. Internet bidez eskuratzeko aukeraz gain, teknologiek zailtasunak dituztenentzat edota Internetarekin moldatzen ez direnentzat, Potxoenean ere eskuratu ahal izango dira.

Bonuak Potxoenean eskuratzeko aukera

Interesatuak egun hauetan hurbildu beharko dute Potxo-



Sarean, hurbilago.eus web orrialdean eskura daitezke. Potxoenean bestela, azaroaren 24an, 29an eta 30ean ordu zehatz batzuetan.

neara:

■ Azaroak 24 osteguna, goizez: 9:00-11:00.

■ Azaroak 29 asteartea, goizez: 9:00-11:00.

■ Azaroak 30 asteazkena, arratsalde, 16:00-18:00.

Bi bonu mota

■ 7 euroren truke, 10 euroko bonua eskuratzeko aukera.

■ 20 euroren truke, 30 euroko bonua eskuratzeko aukera.

*Diru-poltsa amaitu arte edo abendua amaitu bitarte.

Hurbilagoren Azoka

Abenduak 4, igandea Dema plazan

■ Partehartzaileak: Lizardi, Marije, Otar Goxo, Ione Iruretagoiena, Kool Studio, Ama eta biok, Kaori Hamarratz, Urluma, Gigil, Mikka Pika, Tilin Talan, SendaGaia, Amlu, Hyle Zizka Mizka, Jose Ramon, Errasti Ogia, Suma Flowers, Puochinah, Koloreztatu Berexi Art, La Marieta Tea, Amesgile, Krysia.

■ 11:00-14:00 Umeentzat tailerrak.

■ Zizkamizka eta Berexi Artekin sorkuntza tailer irekiak.

■ 12:00 Amesgile Argitaletxearen ipuin kontaketa.

Pilota egokituko txapelketa 80 urtekoei gorazarre



Txapelketaren amaieran, familia-argazki hau atera zuten frontoian.

I. Mikel Izagirre pilota egokituko txapelketa jokatu da aste-buruan; Oreretan lehen fasea, eta azkena igandean Usurbilen. Pagazpe partaide izan zen erakustaldian eta txapelketan.

Finalaurrekoak

Mindara 15-6 Pagazpe-Mindara
Baiona 15-8 Pagazpe

Finala

Baiona 11-25 Mindara



Aurten, Aginagako Arrate elkarteak Maria Jesus Arrospide omendu du.

80 urteko kideak omendu zituen iragan igandean Arrate elkarteak Aginaga sagardotegian. Aurtengoan Maria Jesus Arrospide. Senide eta lagunez inguratua ospatu zuen eguna.

Bada aurten Arratek omendu nahi izan duen bigarren lagun bat ere; Isabel Gutierrez. Baina ez du bertan egoterik izan, Asturiasen bizi baita. Zorionak!

Kosmetika naturala eta gozogintza tailerrak Santuenean



Kosmetika tailerrean belarrak eta naturako elementuak baliatu zituzten.

Kosmetika naturala eta gozogintza tailerra egin zituzten ostiral arratsaldean Santuenea

Elkartean.

Gozogintza tailerra ostiral honetan ere egingo dute, Ga-



Turroiak edota bonboiak nola egin ikasi zuten aurreko ostiraleko tailerrean.

bonetako bestelako gozo batzuk egiteko. 17:30ean hasiko da tailerra eta 10 euro balio du

helduentzat, 7 euro elkarteko kideentzat eta 2 euro adingabekuentzat.

NOAUA!k antolaturiko Kulturaldian jende ugari ibili da



'Black is Beltza II: Ainhua' filmak jende ugari erakarri zuen.

Fermin Muguruzak zuzendutako "Black is Beltza II: Ainhua" animaziozko filmak 80

lagun batu zituen aurreko ostiralean Sutegin.

NOAUA! Kulturaldia la-



Metrokoadrokaren antzezlan berriarekin amaitu zen NOAUA!ren kultur zikloa.

runbat gauean amaitu zen "Zeozertan dabil, baina ez dakit zertan" antzezlanarekin.

Sitcom eta umore absurdotik elikatzen den obra honek ere jende asko erakarri zuen.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia, terraza. 688710916.

Alokairuan

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume baten zaindaria. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziakoa da. 649 429 416

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m²

garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak eman. go dizkion pertsona baten bila gabiltza. 608201745

Klase partikularrak emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. Interesa dutenek 943 36 12 16

telefono zenbakira dei dezatela.

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondan. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jabetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskalduna bat

naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest da goen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsaldeko haurrak zain-tzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679219805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanean zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta

ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalari-tzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galduta duenak Udaltzainetan galdetu, bertan utzi dugu.

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Heriotzak**Vicenta Mata Collado**

Azaroaren 19an hil zen, 80 urterekin



Zorionak Nora! Azaroaren 27an zure 10. urtemuga ospatzeko irrikitan gaude zure etxe-koak. Muxu handi bat.

Pilota partidak

Azaroak 25, ostirala
Aginagako frontoian, 18:00:
Kadeteak, 2. Maila
Banaka buruz buru:
-Aburuza (Pagazpe)
-Gaztañaga (Gazteleku)

Infantilak 2. Maila
(Errendimentua):
-Indakoetxea (Pagazpe)
-Tejeria (Txulobi)

-Jauregi (Pagazpe)
-Urrestilla (Ospele)

Azaroak 26, larunbata
Aginagako frontoian, 16:00:
Eskola Kiroleko 1. Faseko alebinen partidak jokatu dira.

Futbol partidak

Azaroak 25, ostirala Haranen:
■ 20:30 Preferente mutilak:
-Usurbil FT
-Astigarraga Mundarro FKE

Azaroak 26, larunbata:
■ 9:00 Infantil neskak:
Usurbil FT A-Antigua Luberrri KE
Usurbil FT B-Lizeotarrak B
■ 10:30 Kadete neskak:
Usurbil FT-Intxaurdi KE B
■ 12:30 Preferente neskek:
Usurbil FT-Zestoa KB
■ 16:00 Jubenilak A:
Usurbil FT-Lagun Onak CD B
■ 18:15 1. erregionalak:
Usurbil FT-Amara Berri KE

Eskubaloio partidak

Azaroak 26, larunbata:
Kadete neskek, Oiardon:
17:00 Usurbil KE- Aiala C ZKE

Senior mutilak, Oiardon:
19:00 Usurbil KE - Mecalbe
Eibar Eskubaloia B

Kadete mutilak, Urdanetan:
17:45 Urdaneta A - Usurbil KE

Jubenil mutilak, Urdanetan:
19:45 Urdaneta - Saizar
Usurbil KE

Jubenil neskek:
- Oñabike Aloñamendi K.E
- Urbil-Usurbil KE
(Eguna eta ordua, zehazteke)

Goardiako farmaziak

Osteguna 24	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 25	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 26	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Igandea 27	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Astelehena 28	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea 29	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 30	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Osteguna 01	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 02	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Lioila 9. Lasarte
Larunbata 03	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 04	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda azaroa

25 ostirala

- Euskal preso, iheslari eta deportatuaren eskubideen aldeko mobilizazioa. 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- Gazte Asteburua. Ikus 15. or.

26 larunbata

- Bizipozaren 6. Jardunaldia. 10:00-13:00 artean Sutegin.
- Kantu-jira. 12:00etan Mikel Laboa plazan.
- Gazte Asteburua. Ikus 15. or.

27 igandea

- Ibilaldia eta haurrentzako filma Santuenean. 10:30ean, Santueneko ludotekatik abiatuta.
- GuraSOSen mobilizazioa. 12:00etan Donostiako Zurriolan, Kursaal-Sagues artean.

Santuenea eta inguruko bazterrak ezagutzeko aukera aparta

Igande honetarako ibilaldia antolatu dute elkarteko kideek Santuenea eta inguruko bazterrak ezagutzeko. Urdaigatik gorako norantzan egingo dute ibilaldia, baina ludotekan elkartuko dira goizeko 10:30ean bidea bertatik abiatzeko. Arratsaldean, haurrentzako pelikula bat jarriko dute elkarteko egoitzan. Musutrik izango dira bi ekimenok.



Igande honetan, goizeko 10:30ean abiatuko dira Santueneko ludotekatik.

Santuenean ekitaldiz beteta dator abendua Gabonetako ekintzekin, bai eta beste hainbatekin ere. Abenduaren 4tik 9ra, Gabonak baino lehen motorrak berotzen hasiko dira auzoan, eta horretarako, ludotekako lokalean tailerra egingo dute Gabonetako apaingarriak eta marrazkiak prestatzeko. Hilaren hasieran, Olentzero ere jarriko dute auzoaren sarreran dagoen parkean.

Aurten ere, Gabonetako Azoka Txikia izango da auzoan, abenduaren 17an.

Abenduaren 21ean, San Tomas egunarekin bat, otarren zozketa egingo dute eta txistorra jateko aukera ere izango da auzoan. Egun horretan ere, girotze lanaz arduratuko da DJ Mendi.

Abenduko agenda ixteko, Olentzero auzoan izango da abenduaren 24an, baina oraindik zehazteke dago egitaraua.

Santueneko auzo-galdeketa martxan da

- Azaroaren 23an, arratsaldeko 18:30ean: Erakusketaren irekiera Santuenea 11n, Zahar Etxean, atzeko aretoan.
- Azaroaren 26an, eguerdiko 12:30ean: Parte hartzea sustatzeko argazkia, Eskubaloi kantxan.
- Azaroaren 29an, arratsaldeko 18:30ean: Solasaldia. Frontoi ondoko lokalean, Al-

dapeta 2. solairuan.

Erakusketari buruzko oharra

Erakusketa Santuenea 12an izango dela zabaldu zen hasiera batean. "Yoga ikastaroak isiltasuna behar duelako lekuz aldatu behar izan dugu", Santuenea Elkarlanean-etik aditzera eman dutenez.

Datozenak

2023ko udal aurrekontu proposamenaren aurkezpen publikoak

Datorren urteko udal aurrekontuen proposamena ezagutzeko bilera erronda.

Azaroak 28, astelehena

- 18:30 Etxealdian (Potxoenea).
- 18:30 Munalurran (Eguzki elkarte).

Azaroak 30, asteazkena

- 18:30 Aginagako Eliza Zaharrean.

Abenduak 1, osteguna

- 18:30 Kalezarreko Haur Eskolan.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

HAPO-aren aurkezpena eta erakusketa Zubietan

Usurbilgo udalbatzak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) hasieraz onartu du. Dokumentuaren eduki nagusiak ezagutarazteko, aurkezpen publikoak eta erakusketak antolatu ditu, etxeko aldiak banatzeaz gain. Zubietan, egun hauetan:

- Aurkezpene: Azaroak 30 astelehena, 18:00etan Zubietako Kaxkapen.
- Erakusketa: azaroaren 30etik abenduaren 6ra, Zubietako Kaxkapen.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

943 36 91 39

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

BONO KANPAINA

**Azaroak 24tik
aurrera**
Hurbilagoko
komertzioetan

**Eskuratu zure bonuak
gertuago.eus atarian**

Bonoak erosteko laguntza
Potxoenean:
Azaroak 24, 9:00-11:00
Azaroak 29, 9:00-11:00
Azaroak 30, 16:00-18:00

EUSKARALDIA

Usurbilgo Udala, Euskaraldiarekin bat

Hitzez ekiteko garaia

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Gurekin euskaraz egin dezakezu!

Eta, amaitzeko:

Euskaraldiaren gala

Abenduaren 3an, Aginagako Eliza Zaharrean!



Usurbilgo Udala

